



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2021eko uztailaren 6ko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2021eko uztailaren seian, zortzi eta erdietan, Herri honetako Herriko Kontseilua, erregulartasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CHAMALBIDE Corinne, M. GOICOECHEA Iñaki,
Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine

Deialdiaren eguna : 2021eko uztailaren 2a

Afitxatze eguna : 2021eko uztailaren 2a

8.ERABAKIA : AKTIBITATEAREN EMENDIOARI AURRE EGOKITZEKO IRAUNKORRA EZ DEN LANPOSTU BATEN SORTZEA.

Nomenklatura : 4.2

Ludotekan jendearen harreraren eta jokoan prestatzearen segurtatzeko iraunkorra ez den animazio lanpostu baten sortzea proposatzen dio Auzapezak herriko Kontseiluari.

Lanpostu hori sortua izanen da 2021eko agorrilaren 1etik 2022ko uztailaren 31 arte.

Astero batezbeste 4 oren lan segurtatu beharko dira.

Hierarkia mailan, C kategoriako lanpostu bat da.

Enpleguen taula ondoko hau bezala betea izanen da :

Enplegua	Gradoa	Hierarkia kategoria	Aurrekondu kopurua	Astero bete beharreko lan oren kopurua	Kontratatzeko oinarria
Animatzaile ordea ludotekan	Animatzaile ordea	C	1	4 oren	Art 3.l 1° de la loi n° 84-53 du 26 janvier 1984

Lanpostua eskainia izanen da 1984eko urtarrilaren 26eko legerako 3.l 1° artikulua segituz, zeinek mugatzen duen kontratuaren iraupena gehienez 12 hilabetetara.

Lanpostu horren ordainsaria 378 indizetik abiatuko da.

Horrezgain, herriko Kontseiluak 2015eko ekainaren 23an finkatu baldintzak eta abantailak ukanen ditu kontratu horrek.

Herriko Kontseiluak, Auzapezaren azalpen gehigarriak entzun eta deliberatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

- Iraunkorra eta denbora osokoa ez den enplegu baten sortzea 4 oren segurtatzeko astero, animatzaile orde gisa, 2021eko agorrilaren 1etik goiti.

- lanpostu horren ordainsaria 378 indizetik kalkulatu dela.

BAIMENTZEN DU Auzapeza gehigarrietan den lan kontratuaren izenpetzea.

ONARTZEN DITU Auzapezaren proposamen guziak.

ZEHAZTEN DU horretarako behar den dirutza aurre ikusia dela urteko aurrekontuan.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balitzko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gainera egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2021eko uztailaren 29an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2021/07/30ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2021/07/30a